

_____, jaun edo andereak, NAN
_____, eta jakinarazpenetarako helbidea
_____, duela, honako hau aurkezten
du **K-Norte 2018 S.L.k Epele 37 (Hernani) helbidean isotanke (isotanga) bidez produktu kimikoak biltegitratzeko jarduera** sailkatuaren lizentzia-espedienteari buruzko informazio publikoaren izapidean.

ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa. 2026ko otsailaren 17an GAOean eta 2026ko martxoaren 10ean Hernaniko Udaleko Iragarki Taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, K-Norte 2018 S.L.k Epele 37 (Hernani) helbidean isotanke bidez produktu kimikoak biltegitratzeko jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzeko espediente informazio publikora atera da.

Bigarrena. Espedientean jasota dago 2026ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bidez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioako zuzendariak emandako Ingurumen-Eraginaren Txostena, 2026ko otsailaren 6an EHAA-n argitaratua.

Idatzi honen bidez, epe eta prozeduren barruan, alegazio hauek aurkezten dira:

ALEGAZIOAK:

1. Ingurumen-ebaluazioa ez da nahikoa

Proiektua prozedura **sinplifikatu** baten bidez ebaluatu da, baina legeak **ingurumen-ebaluazio arrunta** eskatzen du arrisku handiko proiektuentzat edo proiektuak eremu sentikorrek ukitzen dituenean.

Dokumentu berak aitortzen du *“la nueva actividad supera los umbrales establecidos de la Directiva Seveso III 2012/18/UE”*, hau da, **arrisku kimiko handiko instalazioa** dela, goi mailakoa. Hala ere, txostenak dio *“los impactos más significativos se producirán durante la fase de obras”*, eta horrek ez du zentzurik, **arrisku nagusia** ustiapen-fasean sortzen baita, **produktu arriskutsuak biltegitratu eta manipulatzeko garaian**.

2. Goi mailako Seveso instalazioa da eta ez dago analisi osoa eginda

Proiektuak **4,99 milioi litro produktu kimiko arriskutsu** biltegitratu nahi ditu. Horrek **goi mailako Seveso instalazio** bihurtzen du, eta honako azterketa sakonak eskatzen ditu:

- kokapen-alternatiben analisisa,
- istripu larrien egoerak,
- sute, leherketa edo hodei toxikoen modelizazioa,
- populazioarentzako arriskuak,
- larrialdi-planak,
- beste industria arriskutsu batzuekin metatze-efektuak.

Azterketa horiek ez dira behar den sakontasunarekin egiten.

3. Ez dira aztertzen EHER eta KEMONERekin sinergiak, koktel-efektua edo domino-efektua, ezta inguruko jardueren hurbiltasuna ere

Kilometro bat baino gutxiagora daude **bi goi-mailako Seveso industria**: Electroquímica de Hernani (EHER) eta KEMONE Hernani.

Horrek esan nahi du eremua dagoeneko **arrisku kimiko handiko gune kritikoa** dela.

Legeak derrigorrezkotzat jotzen du efektu metatuak eta kate-efektuak aztertzea, baina dokumentuak:

- EHERen arrisku partzial bat soilik dela aipatzen du,
- ez du aztertzen bi industria horiek proiektu berriarekin nola elkar eragin dezaketen,
- ez du kate-istripuen analisisa egiten,
- ez du erantzun-gaitasun bateratua ebaluatzen.

Jurisprudentziak dio azterketa hori ez egiteak **prozedura baliogabetu** dezakeela.

Gainera, lursailak aurretik pintura eta laka fabrika bat hartu zuen, 2012an erre zena. Alboko eraikina Indartu-Simeyco da, produktu inflamagarri berdinak erabiltzen dituena. Horrek, arrisku metatua sortzen du eta aurreko suteak arrisku hori errealitate gertagarria dela frogatzen du.

Eremu horretan sute bat gertatuz gero, biltegiaren tenperatura igo liteke, edukiontzien presioa handitu, eta leherketak eta suteak gerta litezke, bereziki 55 °C-tik beherako su-hartze puntua duten produktuak biltegitratuko direlako.

Lursailaren beste aldean TBH (Tolosa Buruntzaldea Hiriarlektoa) dago, Lurraldebus zerbitzuaren egoitza, autobus-trafiko handiarekin eta erregai-depositu handiarekin.

4. Ez da behar bezala aztertzen uholde-arriskua

Lursaila **uholde errepikakortasun handiko eremuan** dago, honako hauetan:

- Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremua,
- Urumea ibaiaren Zaintza Eremua,
- Lehentasunezko fluxu-gunea,
- Urumea Babes Eremu babes-periferia.

Txosten ofizialek jada EHER eta KEMONE industriei eragin dieten uholdeak deskribatzen dituzte, eta horiek **kate-efektuak** sortu dituzte.

Produktu askok urarekin bortizki erreakzionatzen dute edo gas sukoiak askatu. Ez lirateke biltegitatu behar, baina proiektuak ez du zehazten zein substantzia sartuko diren, ezta zein kontrol-neurri aplikatuko diren ere.

Ez da aztertzen:

- uholde batek hiru industria kimikori batera nola eragingo liekeen,
- substantzia arriskutsuen askapena,
- Urumea ibaian eta Babes Eremu Berezia izango duen eragina,
- eremuaren ebakuazioa,
- larrialdi-planen bateragarritasuna.

5. Ez dira behar bezala aztertzen merkantzia arriskutsuen garraioaren arriskuak

GI-3410 errepidea da sarbide bakarra eta, dagoeneko, honako hauek jasaten ditu:

- kamioi astunen trafikoa,
- EHER eta KEMONEren merkantzia arriskutsuen garraioa,
- Lurraldebusen autobus-trafiko handia.

Proiektuak zisterna-kamioien trafikoa handituko du, baina ez da aztertzen:

- istripuen arriskua,
- errepidearen estutasuna,
- autobus eta kamioien arteko elkarrekintza,
- etxebizitzaren hurbiltasuna.

Proiektuak 20 eta 40 kamioi-mugimendu artean aurreikusten ditu egunean, 6:00etatik 22:00etara. Horrek, gutxienez, orduko bi kamioi gehiago esan nahi du eta, trafikoa ordu gutxitan pilatzen bada, are trafiko handiagoa izango da. GI-3410 dagoeneko oso saturatuta dago, eta kamioi gehiago gehitzeak istripu-arriskua handitzen du.

Trafikoaren nolakotasuna aintzat hartuta, istripu baten ondorioak oso larriak lirateke.

6. Ez da bermatzen bateragarritasun urbanistikoa, ezta ingurumen-bateragarritasuna ere

Araudiak **segurtasun-distantziak** mantentzea eskatzen du instalazio arriskutsuen eta honako hauen artean: etxebizitzak, erabilera publikoko eremuak eta naturgune babestuak.

Jarduera hau **berria eta arrisku handikoa** da, obra garrantzitsuak behar ditu eta **ez dago indarreko hirigintza-planeamenduan aurreikusita**. Arau Subsidiarioek jada ohartarazten zuten **hutsune juridiko bat** zegoela jarduera arriskutsuen inguruan, eta behin-behineko neurriak aurreikusten zituzten Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendurako Gidalerroak onartu arte.

Horregatik, **ezin da lizentzia eman**, jarduera honek aurretik **udal planeamenduaren aldaketa puntuala** behar baitzuen, Lurzoruaren Legearen 2/2006 arabera.

Egungo hirigintza-egoera:

- Etxebizitzak 120 metrora daude, Hernaniko erdigunea 2 km-ra eta hainbat auzo askoz gertuago: Zikuñaga, Epele eta bertako bi planta kimikoak 1 km-ra. Astigarragan (2 km) eta Urnietan (3 km) beste 12.000 pertsona bizi dira. 20.000 biztanle inguru bizi dira 2 km-ko erradioan.
- Instalazioa Urumea ibaiaren ondoan dago, Natura 2000 Sareko ZEC ES2120015 Babes Eremu Berezia "Urumea ibaia / Río Urumea" gunean, balio ekologiko, faunistiko eta floristiko handiko eremuan. Administrazio publikoak ahalegin handia egiten ari dira habitat horiek hobetzeko. LIFE KANTAUURIBAI Europako proiektu bat da, eta bere helburu nagusia da espezieen eta ibai-ekosistemara lotutako habitataren kontserbazio-egoera hobetzea. Ingurune hau proiektuaren barruan dago.
- eremua ingurumen-ikuspegitik oso ahula da.

Proiektuak ez du frogatzen distantzia horiek betetzen dituenik, ezta ingurunearekin bateragarria denik ere eta ondorioztatzen da proiektu horrek Europar Batasuneko Kontseiluaren Natura Leheneratzeko lan-ildoan aurka egiten duela.

ESKATZEN DUT

- **Alegazio hauek aurkeztutzat hartzea.**
- **Egindako ingurumen-ebaluazioa ez dela nahikoa adieraztea eta Eusko jaurlaritzara espedientearen bueltatzea ingurumen eraginaren ebaluazio arrunta izapidetu dezan.**
- **Arrisku sinergikoengatik eta proposatutako kokapenengatik, Hernaniko Udalak K-Norte enpresaren jarduera sailkatua ez baimentzea.**

Hernanin, 2026ko apirilaren _____(e)an

Sinadura: